

Marcelo Totorika, pilotari ohia

“Imanol Agirrek egindakoa ez da kasualitate hutsa izan”

Ermuarra izan arren, azken urteetan Arratia aldeko Areatzan bizi da. Urte askotan Ermuko pilota taldean aritutakoa, herri arteko hiru txapelketa irabazi zituen. Gaur egun, pilota alde batera utzita duen arren, Imanol Agirre iloba profesional mailan dagoenetik maiz izaten da pilotatokietan. Auto eskolako irakasle gisa jarraitzen du, tarteka betidanik hain gustoko izan duen abesbatzak urratzen dizkiol eguneko gainontzeko orduak. Ermura etortzea geroz eta zailagoa egiten zaiola aitortu digu.

- Ermua utzi eta Areatzara nolatan?

Betidanik Ermuan bizi izan naiz baina lana dela eta, 13 urte Bilbon pasa nituen eta handik gutxira Arteara etorri ginen. Igorreko auto eskolan hasi nintzen lanean eta ordutik hemen bizi gara lasai lasai baserri giroan.

- Arratia aldea gune lasaia eta euskalduna da oso...

Baserri asko da hemen eta lekua benetan lasaia da. Euskarari dagokionez, konturatu naiz kanpotik hona datorren jendeak ere nabarituko zuela euskaraz bizi den herria dela hau eta bertako eguneroko bizitzan barneratzea ezinbestekoa dela.

- Ermura maiz etortzen zara?

Garai batean sarriago joaten nintzen. Ama hil zitzaidanetik, geroz eta gutxiago joaten gara. Dena den, batzutan arrebaren etxera bazkaltzera joaten gara.

- Herriarteko pilota txapelketako garai-pen urteak nola gogoratzen dituzu?

Oso ederrak izan ziren. Garai haie-tan Ermuan pilotak indar handia zuen.

- Ondoren erabat utzi zenion pilotan jokatzeari?

Ermuan omenaldia egin ostean, Zeanuriko taldean semea eta biok aritu ginen Imanol ilobarekin batera. Horrez

gain, Bizkaiko Pilota Federakuntzan ere aritu nintzen. Gaur egungo ESKU PILOTA deritzan proiektuaren sortzailetakoa naiz. Desadostasunak tarteko, azkenean utzi egin nuen.

- Abesbatzean abesten ere hor zabilta...

Aspaldiko zaletasuna dut hori. Luis

Mari Izagirre zena bizi-rik zenean ere makina bat urtez aritu nintzen.

- Aitona bihurtu berri zara...

Nire semeak eta bere bikoteak duela gutxi izan dute. Oso pozik nago aitona gisa, gaztetu ere egin nau.

- Imanol Agirre ilobak aurtengo txapelketan lan itzela egin du...

Berak erakutsi duen maila ez da kasualitate hutsa izan. Lan asko egin du azken urteotan bai fisiko nahiz psikologikoki. Eugiren aurka partidua itzela egin zuen eta Barriolari ere aurre egi-ten saiatu zen.

- Arratia aldean izugarritzko ikusmina piztu zuen..

Zaletuz betetako autobus bat ere joan zen Eibarrera. Dudarik gabe Imanoli esker pilotak Arratia aldean indar handia hartu du.

Asier Ibaibarriaga



- * Errehabilitazio zentrua
- * Kirol medikuntza
- * Zuzpertz funtzionala
- * Ariketaren fisiologia
- * Kirol masaia

Diputazioa 8-10 (ERMUA)



Tel. 943 17 21 12 - 17 21 16 Faxa. 943 17 21 12